

---

# IZKUNTZATIK ERRI-JAKINTZARA

---

## IZKUNTZA NAGUSIAK

Erakunde, arazo ta eginkizunak norberarena ez clan izkuntza ikasteko almen edo al-izate guztiak emoten dabez. Ingeles, prantzes, aleman dira ikasten diran izkuntzak, bai Akademietan haita eratzen diran txango ta ibilaldietan.

Gure lurraldietan eztago orain bildurrik seme-alabak atzerrietara hialduteko. Gero ta geiago doaz gazte-ikasleak Ingalaterra'ra, Irlanda'ra, Laterri-Alkartu'etara, Alemania'ra, Kanada'ra, Prantzia edo Alemania'ra, 3.000.000 inguru noriki ikasle.

## IKASTEKO ERAK

Bultz-eragilliak askotariko era-arauak eskeintzen dahez: sendiarte-ikastaroak, urte-akademikuak, berarizko-ikastolak, uda-ikastaroak, kanpaldiak.

Era hakoitxak, era hakoitxaren lagunak euren jendarte zeatza deuke. Karlos Torre Bilhao'n dan hultzagille baten eskuhidedunak diñoanez, gaztientzat akademiku urteak; lenengoz ibiltaldia egiten dahan ume gaztientzako, ikastolarik onenak izaten dira, dan-dana eraturik dauke eta eurok hertan pozik dagoz.

Alan eta guztiz be, ingelesen izkuntzan esaera batek diñoan Iez, "One to One" = **batek bateri**, 25 urte baiño geiago dauken gizakientzat erarik onena eristen da.

Irakaslearen etxean bizi ta ikasi bakarka egiten dauna-erentzat, ordu guztietan irakasle beragaz gogoratu ta berba egiteak, erreztu ta eskuratu egiten dau ariñago ikasteko aren izkuntza ta zerkelada onetan zeurea aide batera itxitea da bidea.

\*\*\*

## GARESTI?

Gure "Zer" aldizkariaren irakurleak euren kolkorakoz esango dabe: zuk diñozu on guztiontzat ederto etorriko dala, eta on lortzeko eragille danetarikoak aurkituko dira baiña salneurriak be garesti izan ta zerugoitik ibilliko dira...

Baiba. Zelan ez? Zer dago orain merke gure gizaki suntsikor, erosle onetan?



Aitamen, aditze eraz, beingoan begitu egizuz: bataz beste, illeroko ikasaldiena inguratu leike 200.000 laurlekora; akademiku urte-ikastaroa 600.000 edo 700.000; eta ikastaro garestienak (one to one), gitxi-gora bera, astero 200.000 laurleko. Egun baterako 7 mille inguru bakotxarena. Eta eragillien eritxiz ezta geiegirik, salneurri beratan egotaldia, janariak eta ikasaldiak sartzen diralako.

## ORBANDUTA

Idazki onen idazpuruan diñoguna "Izkuntza hat ikasteak, kultura bat ezagutzea esan gura dau" nik askotan neure buruan darabilt: "Guk euskotar-euskeldunok gure izkuntza ederra, Euskerea, ondo ta sakonez ikasiko geunke, konturatuko bagiña emen agertuko doguna: "Eusko-Abendearen-Ereserkian" esaten dana. Eta, beraz, alegiñak egin zoritxar oneik jazo ez dakiguzan, edo gugandik aldendu daitezana.

**ALDI BATEN GURE AMA-ABERRI MAITAGARRIA, SEMIOK GENKUSAN EDUR-BARRIA BAXEN GARBIA; ORAIN OSTERA ITXASI YAKO-ARROTZEN DONGAKERIA! AU TAMAL MINGOTSA! AU OÑAZE LATZA!**

**ORBANDU DALA ABERRIA!**

LETONA'K